# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriak 16**

**Vitoria-Gasteiz, 16 de octubre de 2018**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

**Enplegua eta Gizarte Politikak**

**LANBIDEK 680.000 EURO GEHIAGO BIDERATU DITU FAMILIA- ETA LAN-BIZITZA UZTARTZEKO BIDE EMATEN DUTEN ENPRESENTZAKO LAGUNTZETARA**

- **Lanbidek 2.380.000 euro izango ditu neurri horiek finantzatzeko**

**Beatriz Artolazabal** Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluari Lanbideren Administrazio Kontseiluaren akordioaren berri eman dio; horren bidez, **areagotu egiten dira** 2018. urtean familia- eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak finantzatzeko **baliabide ekonomikoak.**

Laguntza-ildo horrek 1,7 milioi euro zituen, hasiera batean, seme-alabak eta mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden familiartekoak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden **langileen ordezkapena** bultzatzeko. Kopuru hori 680.000 euro igotzea proposatu da. Horrela, Lanbidek, guztira, 2.380.000 euro izango ditu neurri horiek finantzatzeko.

**Familiako eta Laneko Bizitza Uztartzeko Laguntzei** buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak familiei zuzendutako hiru jardun-ildo aurreikusten ditu: lehenengoa, seme-alabak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileei **laguntzeko**; bigarrena, mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden **familiartekoak zaintzeko**; eta, hirugarrena, seme-alaba adingabeak zaintzeko **langileak kontratatzeko**.

Bestalde, Dekretuak laugarren laguntza-ildoa ere aurreikusten du, baina hori **enpresa kontratatzaileak diruz laguntzera** bideratzen da, eta zuzenean kudeatzen ditu Lanbidek (aurreko hirurak Familiako eta Politika Komunitarioko Zuzendaritzak). Gaur Gobernu Kontseiluak onetsi dituen laguntzak azken laguntza-ildo horri dagozkio.

Oro har, lau jardun-ildoak **Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko III. Planaren** esparruan kokatzen dira; horren funtsezko helburua da familien sustapen- eta laguntza-politikak sustatzea beren bizi-ziklo osoan.

Ebazpen honetan jaso diren diru-laguntzak **norberaren kontura** dabiltzan pertsona fisikoek eta Euskal Autonomia Erkidegoan lan-zentroa duten pertsona **juridiko pribatuek** –sozietate publikoak izan ezik– eskatu ahalko dituzte. Eskabideak aurkezteko epea urte osoan dago zabalik.

## Hezkuntza

### 450.000 EURO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN ARTEAN KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako ikasleen artean 2018-2019 ikasturtean kultura ekintzailea sustatzeko diru-laguntzatarako deia egiten duen Agindua.

450.000 euroko diru kopurua duen deialdi hau 2018-2019 ikasturtean Euskadin Erdi mailako edo Goi mailako heziketa zikloren batean 2. mailan dauden ikasleei zuzendua da. Horrez gain, ikasle onuradun horiek enpresa-simulazioko proiektu bat lantzen aritu beharko dute ikasgelan, eta ezin izango dute eduki 30 urte baino gehiago 2018ko abenduaren 31n.

Jasotako diru-laguntza, enpresa-simulazioko proiektua garatzeko beharrezkoak diren berariazko softwarea edo materialak erostean izan diren gastuak ordaintzeko erabili beharko da. Ikasgelako simulazio proiektu hauek bakarka garatu ahal izango dituzte ikasleek, edo taldeka antolaturik. Nola nahi ere, proiektu bakoitzeko diru-laguntza bakarra izango da, bakarka zein taldeka egin, gehienez ere 2.000 euro proiektu bakoitzeko.

***Ikasenpresa* programa**

*Enpresa eta Ekimen Ekintzailea* moduluaren barnean, Lanbide Heziketako 2. mailako ikasleek (Erdi mailako zein Goi mailako zikloetan) I*kasenpresa* deritzon programan parte hartzen dute. Kultura ekintzailea sustatzea helburu duen hezkuntza-programa bat da hau, eta beroni esker ikasleek ekinez ikasten dute ekintzaile izaten.

Horretarako, enpresa-simulazioko proiektuak erabiltzen dira ikasteko tresna gisa, eta horrela, ikasleek aukera dute hainbat konpetentzia garatzeko, pertsona profesional, enplegagarri, aktibo eta ekintzaile edo intraekintzaile izateko eta lan-merkatu aldakor eta ezegonkorrari aurre egiteko. Era berean, programa honek ikasleak sentsibilizatzen ditu, autoenplegua aukera gisa ikus dezaten.

*Ikasenpresa* programak hezkuntza-testuinguru berritzailea sortzen du eta ikasteko metodologia nagusiki praktikoa darabil. Horrek ikasleak behartzen ditu erosotasun-egoeratik irtetera eta ondoren lan-merkatuan aurkituko dituzten egoerei edo arazoei aurre egitera.

## Hezkuntza

### 2018ko EUSKADI IKERKETA SARIAREN DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2018ko Euskadi Ikerketa Saria deitzen duen Agindua onartu du, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz. 2018an, Zientzia eta Teknologia modalitatean deitzen da saria.

Euskadi Ikerketa Sariak jarduera zientifikoa sustatzea du helburu nagusi, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikertzaileek eta talde kualifikatuek egiten dituzten ahaleginak sustatzea eta bultzatzea ere, betiere horien lanak oso eragin positiboa badu Euskadirako.

Euskadi Ikerketa Sarirako hautagai izan daitezke doktore tituluaren jabe diren ikertzaileak. Horrez gain, hautagaiak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko ikerketa zentroren batean aritu edo bertara atxikia izan beharko du, eta bere ibilbide zientifikoa Euskadin garatua izan, gutxienik 12 urtez, doktoregoa eskuratu ondoren. Era berean, Ikerbasque Fundazioak kontrataturiko irakasleen hautagaitzak ere onartuko dira, arestian aipaturiko sareko ikerketa zentroren batera atxikita badihardute.

Hautagaitzak proposatu ditzakete bai erakunde zientifikoek, bai beste ikertzaile batzuek, eta baita hautagaiak berak ere. Hautagaitzak aurkezteko epea deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da, eta 2018ko azaroaren 26ra arte egongo da zabalik.

2018ko Euskadi Ikerketa Sariak 42.000 euroko hornikuntza du, ezin zatituzkoa eta bakarra. Bi urtean behingo errotazioz deitzen da, jarraian azaltzen den eran: urte bakoitietan gaiak Gizarte Zientziei eta Humanitateei buruzkoa izaten dira, eta urte bikoitietan berriz, oraingo kasu honetan bezala, Zientzia eta Teknologiari buruzkoak.

Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitateak arlo hauek hartzen ditu: Gizarte eta Ekonomia Zientziak, Zientzia Juridikoak eta Humanitateak. Zientzia eta Teknologiaren modalitateak, berriz, Oinarrizko Zientziak, Bizitza eta Osasun Zientziak, Teknologia eta Arkitektura.

## Hezkuntza

**200.000 EURO KONGRESUAK ETA ZIENTZIA BILERAK EGITEKO LAGUNTZATAN**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du ikerketa zientifikoaren arloko kongresu eta bilera presentzialak antolatzeko diru-laguntzak ematen dituen agindua. Kongresu eta bilera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan burutu beharko dira, 2019ko lehen seihilekoan. Deialdi honek 200.000 euroko diru-kopurua du.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente kreditatuak, haien kategoria edozein dela ere.

Diru-laguntza hauek, honako gastu arrunt hauek ordaintzeko erabili beharko dituzte: kongresu edo bileraren antolamendua eta zabalkunde gastuak, hizlari gonbidatuen parte-hartze gastuak, edo kongresuen kasuan, ekarpen zientifikorik onenari eman ohi zaion saria.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, bereziki prestakuntzakoak diren ikastaroak eta jarduerak, hala nola irakaskuntzako eta ikaskuntzako trebakuntzarako prestakuntza-jardunaldiak, tailerrak edo mintegiak, besteak beste.

**21kongresu edo bilera bigarren seihilekoan**
Deialdi hau sei hilean behin argitaratzen da, eta Euskadin burutzen diren 60 kongresu edo bilera inguru finantzatzen laguntzen du, urteko. Aurtengo lehen seihilekoari dagokion deialdiaren bidez, 21 kongresu edo bilera lagundu dira diruz 2018ko uztailetik abendura bitartean. Kongresu horien antolatzaile izan dira UPV/EHU, BCBL (Basque Center on Cognition, Brain and Language), Deustuko Unibertsitatea, DIPC (Donostia International Physics Center), Biodonostia, Tecnalia Fundazioa, edo Bcam (Basque Center for Applied Mathematics), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea osatzen duten beste zenbait eragileren artean.

Ikerketa zientifikoaren arloko kongresu eta bilera hauek oso tresna egokiak dira ideiak eta ezagupen zientifiko eta teknologiko aurreratuak trukatu eta zabaltzeko, prestigio handiko ikertzaile eta irakasleen parte hartzea bultzatzen baitute.

**Segurtasuna**

## EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN ANTOLAKETAN ESKU HARTUKO DUTEN NORBANAKOEN HABOROKINAK ETA BESTELAKO FUNTZIONAMENDU-GASTUAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUA ONARTU DA

Gobernu Bilerak gaur onartu du, Segurtasun Sailak eskatuta, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen antolaketan esku hartuko duten norbanakoen haborokinak eta hauteskunde-administrazioarekin lotutako bestelako funtzionamendu-gastuak arautzen dituen dekretua.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 16.2 b) artikuluak xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari dagokio, hauteskunde-arloan organo eskuduna den aldetik, “Hauteskunde Batzordeen egitekoa betetzeko behar ditzaten bitarteko materialak eta giza baliabideak haien esku jartzea” Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.

Bi dekretuk garatu dituzte araudi bidez beharrezko bitarteko materialei buruzko alderdiak, hauteskundeetan erabiltzeko kutxa, kabina, boto-txartel, kartazal eta gainerako agirien eredu ofizialak eta ezaugarriak eta material hori eskura emateko prozedura zehazteari dagokienez.

Hauteskunde-prozesuan esku hartzen duten giza baliabideei eta haiei ordaintzen zaizkien haborokinei eta dietei dagokienez, orain arte honela jokatu izan da: hauteskunde-prozesu bakoitzaren hasieran, Gobernu Bilerak erabaki bat hartzen zuen, eta erabaki horren bidez, hauteskunde-administrazioaren eta horren organo eskuordetuen zerbitzura lan egingo zuten giza baliabideek eragindako gastuei eta hauteskunde-administrazioaren eta horren organo eskuordetuen funtzionamenduari egotzitakoei aplikagarri izango zitzaien araubidea onesten zuen.

Xedapen honen bidez, ordea, izaera egonkorreko xedapen orokor batean jaso nahi dugu giza baliabideei ordaindu beharreko gastuei eta funtzionamendu-gastuei dagozkien ordainsarien eta haborokinen araubidea, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea araudi bidez zehatzago garatu ahal izateko eta aplikagarriak diren arauei zabalkunde eta publizitate handiagoa emateko, hain zuzen ere.

Dekretu honek, beraz, hauteskunde autonomikoetan esku hartzen duten norbanakoek jasoko dituzten zenbatekoak arautzen ditu.

Guztira 3.700 norbanakotik gora dira, eta horien artean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak behar bezala gauzatzen laguntzen duten kolektibo ezberdinak bereiz daitezke.

Kolektibo horietan Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeetako eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeetako kideak eta horietako laguntzaileak daude.

Hauteskunde Batzordeen ordezkariak diren eta hauteskunde-prozesuaren kudeaketaren oinarrian dauden udal-idazkariei ordainduko zaizkien haborokinak ere arautzen dira.

Gainera, idazkariak bere lanak zuzen egiteko dituen laguntzaileek jasoko dituzten haborokinak ere ezartzen dira.

Era berean, lehen auzialdiko epaileek eta bake-epaileek –hauteskunde-aktak zaintzeaz arduratzen direnek– jasoko dituzten zenbatekoak ere arautzen dira, bai eta EAEko Administrazioak hauteskundeetarako izendatutako ordezkarienak ere. Gizabanako horiek dira hautesmahai bakoitzeko emaitzak jasotzen eta transmititzen dituztenak eta, gainera, sor daitezkeen premietan mahaiari laguntzen diotenak.

Aipatutako kolektibo horietako 3.700 gizabanako horiez gainera, Dekretuak hautesmahaietako kideei (2016ko azkeneko hauteskundeetan 7.800 inguru izan ziren) ordaindu beharreko dietak eta beste hainbat alderdi ere arautzen ditu.

Azkenik, Dekretuan Hauteskunde Batzordeek eta udal-idazkariek hauteskunde-prozesua dela eta izan ditzaketen bestelako gastu materialei aurre egiteko aurreikuspenak ere egiten dira.

Bestalde, dekretuan aurreikusten da adierazitako zenbatekoak hauteskunde-prozesu bakoitzean eguneratzeko ahalmena ematea Gobernu Bilerari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko litzatekeen akordio baten bidez.

Adierazten diren zenbatekoek ez dute orain arte ordaindutakoekiko alde handirik, doikuntza jakin batzuen kasuan izan ezik.

Berrikuntzarik handiena da mahaiko kide bakoitzarentzat 85 euroko dieta ezartzen dela, eta 2016ko hauteskunde autonomikoetan 75 eurokoa izan zen. Gogoratu behar da, bestalde, kopuru hori bere horretan utzita zegoela 2009tik.

Dekretuaren garrantzia neurtzeko, adierazi behar da, esate baterako, 2016ko azken hauteskundeetan adierazitako kontzeptuetan ordaindu zen zenbateko osoa 2.370.000 eurokoa izan zela.

**Segurtasuna**

## GOBERNU BILERAK JOKOAREN EUKAL BEHATOKIA SORTZEKO ETA ARAUTZEKO DEKRETUA ONARTU DU

Jokoaren Euskal Behatokia kide anitzeko eta arloarteko organo bat da, eta Euskadiko jokoa etengabe aztertzea eta ikertzea du helburu.

Behatokia sortzeak Euskadiko jokoaren errealitatearen berri sistematikoki jakitea eta errealitate hori eguneratuta izatea ahalbidetuko du, bai eskaintzari dagokionez, bai gizartean dagoen eskaerari dagokionez, bai Euskadin eta beste esparru geografiko batzuetan adierazten diren joera prospektiboei dagokienez.

Horretarako, aldian behingo inkestak eta azterlan ekonomiko eta sozialak egingo ditu honako hauen berri jakiteko: jokoaren sektorearen egoera eta jokoari buruzko politika publikoen ezarpena; enpresa-sektorearen osaera; jokozaleen profila eta horien pertzepzio subjektiboa; jokoari buruz gizarteak duen pertzepzioa eta jokoari buruzko politika publikoak, eta abar.

Azterlan eta prospekzio horietatik abiatuta, jokoarekin eta jokoari buruz gizarteak duen pertzepzioarekin zerikusia duten eta gorantz egiten ari diren fenomenoak hauteman ahal izango ditu; jokoari buruzko politika publikoek enpresa-sektorean, jokozaleengan eta gizartean, oro har, duten inpaktua aztertu ahal izango du; jardunbide egokiak eta ekimen gomendagarriak hauteman eta hedatu ahal izango ditu; eta jokoari buruzko ikerketa, azterketa eta prestakuntza lerroak sustatu ahal izango ditu.

Hori guztia egiteko Adikzioen Euskal Behatokiarekin eta Gazteen Euskal Behatokiarekin koordinatuko da.

Horrek ahalbidetuko du jokoari buruzko politika publikoak zehaztea eta ebaluatzea; jokoak gizartean, oro har, eta adingabeen kasuan, bereziki, duen intzidentziari buruz ikertzea; adikzio-portaerak kontrolatzea; eta sentsibilitatea sustatzea arduraz eta berme osoz jokatzearen mesedetan.

Orain arte analisi-lan hori aldian behin egin da jokoaren liburu zurien eta memorien bidez.

Behatoki hau sortuta, hemendik aurrera normalizatu egin nahi da orain arte egiten zena. Behatokiak lan-metodologia sistematizatuko du jokoari buruzko politikak ebaluatzea eta sektorearen etorkizuneko joerak ikuspegi prospektibotik ikertzea ahalbidetuko duten datuak eta magnitudeak kodetzeko, sailkatzeko, kategorizatzeko eta aztertzeko, aginte publikoek une bakoitzean neurririk egokienak hartu ahal izan ditzaten. Eta bere jarduera guztietan kontuan izango du genero-ikuspegia.

Jokoaren Euskal Behatokia hainbat arlotako kidek osatuko dute, eta Joko eta

Ikuskizun Zuzendaritzaren titularraren lehendakaritzapean, eta diziplina anitzeko ikuspegi batetik, jokoari buruzko politika publikoetan, adikzioetan, gazterian, estatistikan eta analisi soziologikoan, zuzenbidean eta araugintzako ebaluazioan, eta merkatuen analisian adituak diren hainbat pertsona bilduko ditu.

Gai jakinak prestatzeko lantaldeak eratzeko aukera ere jaso da Dekretuan, bai eta bileretara sektoreko beste erakunde, antolakuntza edo elkarte batzuetako ordezkariak edo adituak gonbidatzeko aukera ere, baldin eta haien presentzia eta iritzia egokiak direla uste bada aztergai den gaiaren arabera. Bestalde, errealitate bera aztergai duten beste behatoki batzuekin elkarlanean jarduteko aukera ere zabalik utzi da.

Jokoaren Euskal Behatokiak urtean edo sei hilabetez behin egiten dituen txostenak, bai eta bestelako txostenak eta liburu zuriak ere, Jokoaren Euskal Kontseiluari eta Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkulariari helaraziko zaizkio. Gainera, aldian behingo dokumentazio-aldizkariak egitea eta hedatzea ere aurreikusten da, Jokoaren Euskal Behatokiak egindako lanen berri emateko.

**Empleo y Políticas Sociales**

## LANBIDE INCREMENTA EN 680.000 EUROS LAS AYUDAS A LAS EMPRESAS QUE FACILITEN LA CONCILIACIÓN DE LA VIDA FAMILIAR Y LABORAL

- **Lanbide dispondrá de 2.380.000 euros para financiar esas medidas**

**Beatriz Artolazabal**, Consejera de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, ha trasladado al Consejo de Gobierno el acuerdo del Consejo de Administración de Lanbide por el que se **incrementan los recursos económicos** destinados a la financiación, en el año 2018 de las ayudas para la conciliación de la vida familiar y laboral.

Esta línea de ayudas estaba inicialmente dotada con 1,7 millones de euros para apoyar la **sustitución de personas trabajadoras** acogidas a una excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijas, hijos y familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria. El incremento propuesto ahora es de 680.000 euros. Así, en total Lanbide dispondrá de 2.380.000 euros para financiar.

El Decreto 177/2010, de 29 de junio, sobre **ayudas para la conciliación de la vida familiar y laboral** contempla, por un lado, tres líneas de actuación dirigidas a las familias: la primera, **apoya** a las personas trabajadoras que se encuentran en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas; la segunda, es para el **cuidado de familiares** en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria; y la tercera, se dirige a la **contratación de personas trabajadoras** para el cuidado de hijos o de hijas menores.

Por otro lado, el Decreto contempla también una cuarta línea de ayudas, si bien ésta se dirige a **subvencionar a las empresas contratantes** y están gestionadas directamente por Lanbide (las tres anteriores, por la Dirección de Familia y Política Comunitaria). Las ayudas aprobadas hoy por el Consejo de Gobierno se corresponden con esta última línea de apoyo.

En su conjunto, las cuatro líneas de actuación se sitúan en el marco del **IV Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias en la Comunidad Autónoma del País Vasco**, que tiene como objetivo fundamental potenciar políticas de promoción y acompañamiento de las familias en todo el ciclo de su vida.

Podrán solicitar las subvenciones a que se refiere la presente Resolución las personas físicas que trabajen por **cuenta propia** así como las personas **jurídicas privadas**, excluidas las sociedades públicas, con centro de trabajo en la Comunidad Autónoma de Euskadi. El plazo de solicitud permanece abierto todo el año.

## Educación

**450.000 EUROS PARA FOMENTAR LA CULTURA EMPRENDEDORA ENTRE EL ALUMNADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a petición de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas para el fomento de la cultura emprendedora entre el alumnado de Formación Profesional durante el curso 2018-2019.

Esta convocatoria, con un importe de 450.000 euros, está destinada al alumnado que durante este curso 2018-2019 esté en 2º curso de un ciclo formativo de Grado Medio o de Grado Superior en un centro autorizado de Euskadi, y que además desarrolle un proyecto de simulación empresarial en el aula. El alumnado beneficiario de estas subvenciones no podrá tener más de 30 años el 31 de diciembre de 2018.

La cuantía de estas subvenciones se destinará a sufragar los gastos derivados de la compra de materiales o de software específicos empleados por el alumnado para el desarrollo del proyecto de simulación empresarial. Estos proyectos podrán ser desarrollados individualmente por un único alumno o de manera colectiva por un grupo de alumnos y alumnas, pero en cualquier caso la subvención será única para cada proyecto, hasta una cuantía máxima de 2.000 euros por proyecto.

**Programa *Ikasenpresa***

Dentro del módulo de *Empresa e Iniciativa Emprendedora*, el alumnado de 2º curso de Formación Profesional, tanto en ciclos de Grado Medio como de Grado Superior, participa en el programa *Ikasenpresa*. Se trata de un programa educativo que tiene por objetivo el fomento de la cultura emprendedora, donde el alumnado aprende a emprender de la mejor manera posible: emprendiendo.

Para ello, se utilizan los proyectos de simulación empresariales como herramienta de aprendizaje y así el alumnado tiene la oportunidad de desarrollar diferentes competencias para ser buenas y buenos profesionales, empleables, personas activas y emprendedoras o intraemprendedoras que puedan enfrentarse al cambiante e inestable mercado laboral, e incluso sensibilizarles para que el autoempleo sea una opción más.

*Ikasenpresa* crea un contexto educativo innovador y emplea una metodología de aprendizaje eminentemente práctica que obliga al alumnado a salir de su zona de confort y a enfrentarse a situaciones o problemas que posteriormente deberá afrontar en el mercado laboral.

**Educación**

**CONVOCATORIA PARA EL PREMIO *EUSKADI DE INVESTIGACIÓN* 2018**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por el que se convoca el Premio Euskadi de Investigación 2018, con el fin de fomentar la actividad científica, en su modalidad de Ciencia y Tecnologia.

El Premio Euskadi de Investigación tiene por objeto fomentar la actividad científica, y estimular, promocionar y valorar los esfuerzos de investigadores y equipos cualificados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo trabajo haya ejercido una influencia positiva destacada en Euskadi.

Podrán optar al Premio Euskadi de Investigación aquellos investigadores e investigadoras que estén en posesión del título de doctor o doctora. Además, la persona candidata deberá pertenecer o estar adscrita a un centro de investigación acreditado como agente de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI), y haber desarrollado al menos durante 12 años su carrera científica en Euskadi a partir de la obtención del doctorado. También se admitirán candidaturas de profesores o profesoras Ikerbasque contratados por la Fundación Ikerbasque y que estén adscritos a algún centro dentro de la RVCTI.

Las candidaturas podrán ser propuestas por entidades científicas, por otros científicos o científicas o por la propia persona candidata. El plazo de presentación de candidatura se abrirá a partir del día siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 26 de noviembre de 2018.

El Premio Euskadi de Investigación, cuenta con una dotación económica única e indivisible de 42.000 euros. Este reconocimiento tiene una rotación bienal establecida de la siguiente forma: en los años impares la temática versará sobre Ciencias Sociales y Humanidades, mientras que en los años pares, como es el caso de esta convocatoria, sobre Ciencia y Tecnología.

La modalidad de Ciencias Sociales y Humanidades incluye las áreas de Ciencias Socioeconómicas, Jurídicas y Humanidades, mientras que la modalidad de Ciencia y Tecnología se ocupa de las áreas de Ciencias Básicas, Ciencias de la Vida y de la Salud, Tecnologías y Arquitectura.

## Educación

### 200.000 EUROS EN AYUDAS PARA LA REALIZACIÓN DE CONGRESOS Y REUNIONES CIENTÍFICAS

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la orden por la que se convocan ayudas para la organización de congresos y reuniones del ámbito de la investigación científica, de carácter presencial, y que se realicen en Euskadi durante el primer semestre de este año 2019. Esta convocatoria tiene un importe global de 200.000 euros.

Estas ayudas están dirigidas, como entidades beneficiarias, a los agentes acreditados de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, pertenecientes a cualquiera de sus categorías.

La subvención se podrá destinar a sufragar total o parcialmente actividades de organización y difusión del congreso o reunión científica, participación de ponentes invitados, ayudas a jóvenes investigadores e investigadoras, y premios a la mejor contribución científica, en el caso de Congresos.

Quedan excluidos de esta convocatoria los cursos y actividades de carácter principalmente formativo, tales como jornadas de formación, talleres y seminarios de capacitación docente.

**21 congresos o reuniones durante el segundo semestre**
Esta convocatoria de congresos, que se publica con una periodicidad semestral, contribuye a la financiación de alrededor de 60 congresos y reuniones científicas desarrolladas en Euskadi cada año. Mediante la convocatoria correspondiente al segundo semestre de 2018, se han subvencionado 21 congresos o reuniones que se han desarrollado o se desarrollan en Euskadi, entre julio y diciembre de este mismo año, organizados por la UPV/EHU, BCBL (Basque Center on Cognition, Brain and Language), la Universidad de Deusto, DIPC (Donostia International Physics Center), Biodonostia, Fundación Tecnalia, o Bcam (Basque Center for Applied Mathematics), entre otras entidades de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Los congresos y reuniones del ámbito de la investigación científica son mecanismos idóneos para promover el intercambio y difusión de las ideas y los conocimientos científicos y tecnológicos avanzados, potenciando la participación de investigadores y profesores de prestigio reconocido. Aumentan, asimismo, la visibilidad global de la ciencia vasca.

## Seguridad

**APROBADO EL DECRETO QUE REGULA LAS GRATIFICACIONES DE LAS PERSONAS PARTICIPANTES EN LAS ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO Y OTROS GASTOS DE FUNCIONAMIENTOS**

El Consejo de Gobierno, a instancias del Departamento de Seguridad, ha aprobado hoy el Decreto por el que se regulan las gratificaciones de las personas participantes en las elecciones al Parlamento Vasco y otros gastos de funcionamiento vinculados a la Administración electoral.

El artículo 16.2.b) de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de elecciones al Parlamento Vasco, dispone que el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, como órgano de la Administración de la Comunidad Autónoma competente en materia electoral, deberá "poner a disposición de las Juntas Electorales, los medios personales y materiales necesarios para el ejercicio de sus funciones" en las elecciones al Parlamento Vasco.

Dos son los decretos que han desarrollado reglamentariamente aspectos relativos a los medios materiales precisos en cuanto a los modelos oficiales y las caracerísticas de las urnas, cabinas, papeletas, sobres de votación y demás documentación electoral así como el procedimiento de entrega del citado material.

En lo que atañe a los medios personales que participan en el proceso electoral y sus dietas y gratificaciones, la práctica seguida hasta la fecha ha sido la aprobación puntual por acuerdo del Consejo de Gobierno al inicio de cada proceso electoral del régimen aplicable a los gastos de personal y funcionamiento que se generaban por la Administración electoral y sus órganos delegados

Por medio de la presente Disposición se trata de fijar el régimen de gratificaciones y compensaciones para tales gastos de personal y de funcionamiento en una disposición general de cáracter estable, que garantice una mayor publicidad y difusión de las normas aplicables y en aras a un desarrollo reglamentario más preciso de la Ley de Elecciones al Parlamento vasco.

El presente decreto, por tanto, regula las cantidades a percibir por aquellas personas que intervienen en las elecciones autonómicas.

Se trata de más de 3.700 personas entre las cuales se pueden distinguir distintos colectivos que tienen el común denominador de colaborar en la correcta ejecución de las elecciones al Parlamento Vasco.

En este colectivo se integran los miembros de las Juntas Electorales de Territorio Histórico y de zona y elpersonal colaborador de las mismas.

Igualmente se regulan las cantidades que perciben los y las Secretarias de los Ayuntamientos que en cuanto delegados de las Juntas Electorales, forman parte de la columna vertebral de la gestión del proceso electoral.

Además, se fijan las gratificaciones a percibir por el personal que colabora con el o la Secretaria para el correcto ejercicio de sus funciones.

Del mismo modo se regulan las cantidades a percibir por los Jueces de paz y Primera Instancia - que tienen una función de custodia de las actas electorales- y de los y las representantes de la administración vasca en las elecciones, que son aquellas personas que recogen y transmiten los resultados electorales en cada mesa, y que además tienen la función de asistir a la mesa en las necesidades que le pudieran surgir.

Aparte de las 3.700 personas que forman los colectivos mencionados, el Decreto también regula las dietas a percibir y otros aspectos concernientes a las y los miembros de las mesas electorales, que en las últimas elecciones de 2016 fueron unos 7.800.

Finalmente el Decreto también establece una serie de previsiones para hacer frente a los gastos materiales en los que pudieran incurrir las Juntas Electorales y los Secretarios de ayuntamientos con ocasión del proceso electoral

Por otra parte, el decreto prevé la posibilidad de que con ocasión de cada elección el Consejo de Gobierno actualice las cantidades que se señalan mediante un acuerdo, que se publicaría en el Boletín Oficial del País Vasco.

Las cantidades que se señalan no suponen alteración significativa alguna de las abonadas hasta la fecha, fuera de algunos ajustes concretos.

La mayor novedad estriba en que se establece una dieta para cada uno de los miembros de mesa de 85 euros frente a los 75 euros de los últimos comicios autonómicos del 2016, cantidad que por otro lado estaba congelada desde el año 2009.

Para calibrar la importancia del Decreto, es de señalar que la cantidad total que por ejemplo se abonó en las últimas elecciones de 2016 por los conceptos que se han referido ascendió a unos 2.370.000 euros.

**Seguridad**

## APROBADO EL DECRETO POR EL QUE SE CREA Y REGULA EL OBSERVATORIO VASCO DEL JUEGO

El Consejo de Gobierno, a instancias del Departamento de Seguridad, ha aprobado hoy el Decreto que tiene por objeto crear el Observatorio Vasco del Juego y regular su composición, organización y funcionamiento como servicio centralizado de información, estudio e investigación de la realidad del juego en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Observatorio Vasco del Juego es un órgano transversal y colegiado que tiene como finalidad el estudio y análisis permanente del juego en Euskadi.

Su creación permitirá el conocimiento sistemático y actualizado de la realidad del juego en Euskadi, tanto en lo que atañe a su oferta como en lo que respecta a su demanda social y las tendencias prospectivas que se manifiesten al respecto en Euskadi y en otros ámbitos geográficos.

Para ello llevará a cabo encuestas periódicas y estudios económicos y sociales sobre dicho sector del juego y la aplicación de las políticas públicas del juego; la composición del sector empresarial; el perfil de las personas jugadoras y su percepción subjetiva; la percepción social del juego y las políticas públicas relativas al mismo, etc.

A partir de tales estudios y prospecciones podrá detectar fenómenos emergentes en relación al juego y su percepción social; analizar el impacto de las políticas públicas de juego en el sector empresarial, las personas jugadoras y la sociedad en general; detectar y difundir buenas prácticas e iniciativas recomendables e impulsar líneas de investigación, estudio y formación en relación al juego.

Todo ello en coordinación con el Observatorio Vasco de Adiciones y el Observatorio de la Juventud.

Ello va a facilitar la definición y evaluación de las políticas públicas del juego, investigar sobre la incidencia social del juego tanto en general como en particular en cuanto a las personas menores de edad y el control de las conductas adictivas y promover la sensibilización en aras de un juego responsable y con garantías.

Hasta la fecha se ha venido realizando tal labor de análisis de forma periódica por medio de la confección de memorias y libros blancos del juego.

Ahora se trata de normalizar lo que ya se venía realizando con la creación de este Observatorio que sistematizará una metodología de trabajo para codificar, clasificar, categorizar y analizar datos y magnitudes que permitan evaluar las

políticas del juego existentes e investigar prospectivamente las tendencias a futuro del sector, para que los poderes públicos puedan adoptar las medidas más acertadas en cada momento. Y ello atendiendo en todas sus actuaciones a la perspectiva de género.

El Observatorio Vasco del Juego presenta una composición transversal que reúne, bajo la presidencia de la persona titular de la Dirección de Juego y Espectáculos y desde una perspectiva multidisciplinar, a expertos en políticas públicas de juego; adicciones; juventud; estadística y análisis sociológico; derecho y evaluación normativa y análisis de mercados.

Se contempla la posibilidad de constituir grupos de trabajo para la preparación de asuntos concretos y la invitación a sus reuniones de personas expertas o representantes de otras instituciones u organizaciones o asociaciones del sector cuya presencia y opinión sean consideradas oportunas por razón de la materia. E igualmente se abre al trabajo colaborativo con otros observatorios que incidan en la misma realidad.

Los informes semestrales y anuales del Observatorio Vasco del Juego, así como otros informes y libros blancos, se pondrán en conocimiento del Consejo Vasco de Juego y la Comisión Técnica Asesora de Juego. Además se prevé la elaboración y difusión pública de boletines documentales periódicos para la difusión de las actividades desarrolladas desde el Observatorio Vasco del Juego.